

FUNTSEZKO SOZIJETATEAK - ALJANTZAK - ELKARTEAK

Gure enpresaren jarduera aurrera eraman ahal izateko funtsezkoa da beste enpresa batzuekin lankidetzak ezartzea. Beste enpresekin lan egingo dugu gure zerbitzua eskaintzeko eta hau osatzeko. Identifikatu ditugun behar nagusiak hauek dira: elikagaiak erosteko enpresa hornitzaileak, garbiketa enpresak eta instalazioen mantenu enpresak.

- **Janarien hornitzaileak:**

Hornitzaile nagusienak honakoak dira: MAKRO eta COSTCO. Enpresa hauetan erosiko ditugu gure jatetxean erabiliko ditugun lehengai nagusienak. Oso eskaintza zabala dute eta prezio on batean lortu daitezke produktuan kantitate handiak erosita bolumenagatiko deskontuak lortuz. Aliantza honen bitartez ere eskaintza bereziak jasoko ditugu trukean denda hauek jatetxean promozionatuz. Nola? Enpresa hauen izena agertuko da gure euskarri desberdinetan: tiketak, menua, etab



- **Garbiketa enpresa:**

Enpresaren garbiketa egiteko ISS enpresa aukeratu dugu. Balorazio eta iruzkin onak ditu eta bere baloreak ere gure enpresaren baloreekin bat datoz. Funtsezkoa da enpresaren garbiketa ezinhobea izatea eta enpresa honek horren bermena ematen digu.

- Gure jatetxearen bereizgarritasuna bere teknologia aurreratua da eta horretarako **TBM (the best machines)** enpresarekin kontratua sinatu dugu. Inbertsio handiak egin ditu enpresa honek ostalaritza sektorean aurrerapen teknologikoetan eta horregatik aukeratu dugu enpresa hau gure lokaleko makinak muntatzeko. Hortaz, gure langileei formakuntza teknikoa eskianiko diete aurrerapen teknologikoen erabilpen optimoa egin dezaten.

- Baita ere **GKE batzuekin kolaboratuko** dugu. Bi ekintza nagusi eramango ditugu aurrera:

- Lortutakoaren %0,5 helburu sozialetara bideratuko dugu. Urtero erabakiko da ze GKErekin lankidetzan arituko garen, urtero finkatuko den helburu sozial baten arabera.
- **Elikagaien Bankuarekin:** soberan geratzen diren jakiak erakunde honen bitartez partekatuko ditugu.

